Erref. kodea: LAF-217-189 [6]

Izenburua: Kazetagintza lanetan, *Herria* aldizkarirako jasotako bertsoak: R-Z

Bertsoak : Herria - S. Z

Sei urthez Amerikan

Un basque retour du Canada (de St. Pée)
se trouve mobilisé pour la guerre de 14

I

Sei urthe Amerikan ~~Canadan~~ Canadan egonik
Gibelerat jin nintzen gogoak emanik
Burasoo aurridetaz gozatu nahizik
Ene sor lekhu ono ez galtzia gatik

II

Banekien ba unat holako bezein sari
Zorak pagatu behar zirela Frantziari
Agurak egin orduko ene etchekoeri
Bereala soldado ninduzten igorri

III

Eman ninduzten beraz infanterian
Tarben ene chirrendu amabigarrenian
Etcherat itzultzeko nindagon lorian
Bi urthe pasatu zada ichtantian

IV

Itsasoa ezti da untzian plazer da
Saltoka hari bada ez da gauza bera
Bakea zelarikan nintzen aligera
Gerla asiz gerostik tristerik nabila

~~Péchiney~~

~~Laurens~~

~~Mr Panthazan~~

Sempertar bat

Sempere

Airea : Bichintchoz egiten da Bezkoitzeko besta.

1

Primader eder huntan hasten naiz kantari
Kayolatik airatu chori bat iduri
Suzetak ~~dakt~~ dekharatu nahiz ik orori
Kantuz bilakatzen naiz denen salatari

2

Martchoko hoita-bata ~~batta~~ ~~eta~~ aste lehena
Kurtsa baten ikusten izatu naizena
Huna zertaratu den Semperen gizona
Jakiteaz nor diren ez othoi estona.

3

Nork erran langileak ez direla uros
Dirua hoin errechki daukatenaz geroz
Desafioka bethi kasik egun oroz
Pariok~~k~~ irabaziz aintzinetik gogoz

4

Plazatik partiturik hiru kilometra
Batto idi orgekin bertzea lasterka
Gizona nausi nahiz alimalen kontra
Gogoa kontrolatzen ~~eta~~ dirua gal-eta

5

Bidea frango luze gizonarendako
Hiru kilometrá-hatsak ongi irauteko
Adina sobera du lan hortan hasteko
Hoinbertze egitea ez nuen usteko.

Voir la suite au verso

6

Berroit 'hamabi urthe eta Antonio
Bere zangoak arin dabila oraino
Lehenik nahi zuen heldu bururaino
Frango zalua bainan ez idiak baino.

7

Irabazduna zuri ez dut bertze deusik
Zure idiez pena ginuela baizik
Urgetan ez zinuen hatsaren eskasik
Ez eta alimalez achola hainitzik

8

Amotzen gertatzeaz ez othoi estona
Hemen baitugu odol hortako gizona
Batek erakutsi du: Zer zalutasuna!
Bertzeak aldiez bere itzain molde ona

Sempertar bat.

Soldado Kantuak. Airea. Amodioetan bada ainitz Kalite.

1°).

Milla bederatzi ehun hiruetanogoïen
bertzu berri bazuek aire chaharrian
Nahi gabetan bainaiz oraiko aldian.
galdia izan nuen Martarrilain bartzian
Soldado egoiteko Kazerna batian.

2°)

Bayonan sarturikan treinian bartchaka.
Besta ondo bainuntzen pichka bat trebeska.
Lagunak hatcheman tut hauche da gombertza
Batek bertziai galdatuz soldado joan hiza
Ustez ta izain gine etchian bezen onza.

3).

Denak amore onian elgarri behatuz.
goratik hari ginen eskaraz Kantuz.
Elhe irringarri ta ditchoak moldatuz.
artian gure herri aldeari behatuz.
oren laurden guziez hainitzez urrundug.

4).

arratsaldeko bietan Kazsernan sarturik.
ez ginuen bezperan bezalako espanturik
Medikuaren bichita Salu passaturik
arropaz eta sakuz laster muntarik.
gamberan sartu ginen ontsa Kargaturik.

5°)

5 c)

Biharamun goizean aituri[k] klerona.
Lagunari erran nion hau ez-diago ona.
ez dut gure herria ez eta Bayonna.
goizeko seietako jeikitzeko tenora.
hala segituz luze izain dut dembora.

6)

Orai lau hilabete armadan naizela.
ez bainuen nik uste halakoik bazela
goizian jeiki orduko ~~dugu~~ dugu desplazera
ernatzen gira denak kafian edaterat
in ahala lagunari rationian kenzerat

7)

goizeko zazpietan hassirik lanian
frango kampoan eta bertziak barnian
gu bluak girelakotz baitira lorian.
lehenik emanik salle d'étudian
ez badugu ikasten punituz abian.

8.

eguerditan justu soparen jatia
bortchatuak baigira lasterka jouaitia.
zain aintzinka emanik lekuen hartzia.
Platian hatchemanik haragi lasgarria.
tiraka hassi eta idurri harria.

9).

gurre kasserna baita à Castelnaudary.
Tunisiano beltzak ditu burruzagi
ederraina eginez mundu guziari.
gero elhe tcharrenak gibeletik jali
ez da fidatzen ahal jende mota harri,

Soudre, Jean Pierre
'Larreko'

+

Soudre, J.P.

= SEMPEREKO MISIONEAK =

"Tantum ergo"ren aire batean.

I

Hemeretzi mende eta berroita hamabortza.
Hiru aita jin zauzkigu misionearentza.
Erakaspen emaitera salbamenduarentza.
Bekatuan baitaukagu (gure arima hotza. bis)

II

Hiru aitak Sempererat bi astentzat jin zauzku.
Egu-tartean egitera: ongi eta prediku.
Salbatzekotz, Aita Lurok lehenik erran dauku:
Manamendu guziak guk, (bisbehar-tugu beiratu. bis)

III

Misionest suharra da Aita Iriartegaray.
Bere solas sarkorrekin, begitartea arrai.
Erran dauku: « Lege bera da lehen eta orai,
Girichtino gare eta (ez Afrikako salbai.» bis)

IV

Predikari ederra da ere Aita Aguirre.
Donibanen sortua da dohain haundien jabe.
Erran dauku: « Bekatutik, beiratu behar gare,
Ez badugu, ifernuan (nahi ~~dun~~ denek han erre. bis)

V

Zoin gocho zen, entzutea mintzatzen Aita Luro.
Bardin Aita Aguirre eta Iriartegaray gero
Hoiek eman kontseiluak atchik detzagun bero.
Egun batez Jainko Jaunak zerurat gaitzan oro.

VI

Dugun beira gain-gainetik, bethi-gande eguna.
Kasu egin, dugun mihi-tzarra edo zikina.
Chede hori dugu denek hartu behar duguna.
Hil-ondoan izaitekotz: (bethiko zoriona. bis)

~~VII~~

~~Zazpi pertsu kantatzen-tut goguak hala emanik.~~
~~Dohain hori izan baitut Jaun Goikoakren ganik.~~

VII

Zazpi pertsu kantatzen-tut goguak hala emanik
Dohain hori izan baitut Jaun Goikoaren ganik.
Gombertitu nahi nuke bekatoros izanik.
Bekatuan bizi denak (ez baitu zorionik! bis)

LARREKO

✝

Sempere Abendoaren 22a 1955.

Jaun Aphez eta Direkturra.

Ausartatzen naiz aste huntan ere bertze pertsu andana baten zuri egortzera. Egun hauetan herrian dugun misione ederraren gainean.

Oraino arras alderdi ttipia baitut, neure ustean nolazpeit zerbeit murduskatu dut.

Ikusiko duzu "Herria"n badugun tokirik edo zer balio duten agertzeko.

Bethiko zure adichkide eta zerbitzari.

Errezebi zatzu nere bethiko agurrik hoberenak.

Jean Pierre Soudre

Ichtilartea

Sempere.

+

Jean Pierre Sovdre 'Larreko'

= Misioneak Semperen =

Airea : Bikario jenerala, Monsieur Haramburu…

I

Hemeretzi mende eta berroitahamabortza.
Hiru aita jin zauzkigu misionearentza.
Erakaspen emaitera salbamenduarentza.
Bekatuan baitaukagu (gure arima hotza. bis)

II

Hiru aitak Sempererat, bi astentzat jin zauzku:
Gu-tartean egiteko, ongi eta prediku.
Aita Luro baitzen buru, lehenik erran dauku:
Manamendu guziak guk (behar-tugu beiratu. bis)

III

Misionest suharra da Ait-Iriartegaray.
Bere solas sarkorrekin, begitartea arrai.
Erran dauku : « Lege bera, da lehen eta orai,
Girichtino gare eta (ez Afrikako salbai » bis)

IV

Predikari ederra da ere Aita Aguirre.
Donibanen sortua da dohain ederren jabe.
Erran dauku : « Bekatutik, beiratu behar gare,
Ez badugu, ifernuan (denek han nahi erre » bis)

V

Zoin gocho zen entzutea mintzatzen Aita Luro,
Iriarte-garay eta Aita Aguirre gero.
Hoiek eman kontseiluak atchik detzagun bero,
Jainko Jaunak egun batez (zerura gaitzan oro. bis)

VI

Dugun beira gain-gainetik bethi-gande eguna,
Kasu egin, dugun mihi: tzarra edo zikina.
Ohede hori, dugu denek, hartu behar duguna.
Hil ondoan, izaitekotz (bethiko zoriona. bis)

VII

Zazpi pertsu kantatzen-tut goguak hala emanik.
Dohain hori izan baitut Jaun Goikoaren ganik.
Gombertitu nahi nuke, bekatoros izanik.
Bekatuan dagoenak, (ez baitu zorionik. bis)

LARREKO

Sempere Urtharrilaren 15a 1956.

Jean Pierre Joudre

Ichtikortea

Saint-Pée sur Nivelle
B. Pyr.

Jaun Diretuurra

Ausartatzen naiz zuri ichkribatzerat bi lerro, nola egortzen dauzkitzudan pertsu batzu, zombeit hitz arrimatu ditut han hemenka zombeit pertsutan. Aire hortan emanak badire pertsu batzu chaharrak eta arras ederrak Sempereko Misione batzuen gainean Sempertar Laurentz zenak.

Errezebi zatzu neure agurrik bizienak eta barkatu nere ausartzia.

Zure zerbitzari

Jan Pierre

Taver, Norbert

HERRIA izeneko astekarian argitaratzeko.

Eskual-Herria.

Kostatarra´ri biotzez.

Aitarren jende maithe-maithia,
Zuen Sort-Herri zoragarria
Hor hedatzen da itsas-hegietan
Aunamendiko alde bietan
Adur ta Ebro ibai ederrak
Badire Sort-Herriaren mugak.

Erdian daude mendi handiak
Mendi artean ibar luziak
Ta agertzen dire basetchiak
mendietan hor-emen jarriak.
Eskual etche churi-churiak
badire eskuararen kabiak.

Aunamendiko Iparraldean
Adur ta Bidasoa artean
Ikhusten da Laburdi gochoa,
Zein ederra da han itsasoa!
Ta Bachenabarre da aldean
Zubero´menditsu gibelean.

Arkitzen dire´egoaldean
Itsaso ta Ebro´ren artean
Bizkaia,Araba,Gipuzkoa,
Guzien ama den Nafarroa.
Hauche da zuen Sort-Herria
Eskual-Herri maithe-maithea!

Norbert Tauer

Tauer´tar Norberta

Ongi badakit ene bertsoak ez direla balio handikoak; ene bertsoak irakurtzen dituztenek behatu behar dute, ni ez naizela sortzez eskualduna......
Ene bertsoekin HERRIAN Eskual-Herriaz hain ederki izkiriatzen duen KOSTATARRARI ene itzal handia erakutsi nahi diot .

Thed. O.

Wyomin-netikk Wyomineat. Zoinbait berrsue. Bi adiskidein dakko ? Airea Semperekko artzainainak.

1er

Zombeit berresue banuzkke egune khantatzekko
Gogoane arrangura frango bainuke ezartzekko
~~Hob~~ Hora berraz zer dutane suyeta hastekko
Fransia uzia dugu ameriketarat jitekko

2eme

Beraz orai hemen gira arunt désertiane
Ardie eta saldiene ororenne artiane
Eta izkare aldetikk urra nasaitkiane
Ez gaitue horrekk. Hatikk izaretzin zairriane

3eme

Orai nahi nuzeke gauzakk untsa esplikatu
Ahide adiskideerre kuraya berritu
Zeren ikusten baitut zombeit direla losatu
Bizkki nahio zuten fransiarat phartitu

4eme

Adiskede horiekk gaztetikk dira ethorie
Zeren uste baizuten dirrua bazela ithurie
Bainan hoain egitekko beharda memorioa argie
Bai ta fransiakko maite horiekk baztereKat uzie

5eme

Beraz adiskide horekk niri dauzkit galdegiten khantiak
Bainan orai emanen dazkot egiñikk berriakk

Zeren bethi ari gizantane unaiteko berresiak
Orai hik dauztak zaimak arrunt jauzaziak

6gne

Duela zonbeit hilabete izane duté galdia
Fransiarat juaiteko kurayo haundia
Bainan adiskide horiek bihotza zuten haundia
Zeren enzune baitute ! aljerriane ari zela gerla bizia

7gne

Lehen ere horen gatik ziren handik phartitiak
uste baizuten zela berrehala finitiak
Zuentzat ere izanne da prochi bat adiskidiak
Zeren on egiten baitu soldadogoaren egitiak

8gne

Beraz orai behare dauzuet gauza bat errane
Kazue egiten ahal duzie amiqua eztiane
Chuchen ibiltzen ahal zizte horrego bidiane
Pariserat heltziarekin chuchen paperak ezkiane

9gne

Zeren baitut nik zuenzat orai beldura
Ez duzuela aise ikusiko zuen ama gaichoa
Hatik hura izanen da zinez ezine berrezia
Fransiarat heldu ondoane. amaren ez ikustia

10gne

Beraz huntane gelditzen niz urrunago juan gabe
Zeren adiskide horiek kechatuko zaizkit hain segurre

Bainan ez nuke sarmurtu nahi horiekin ere Zhed: O
Zeren untsa lagunedu bainute orai arte

Tristant, Michel
'Otsaldetarra'

Aria : Nahi balira hil eta salbatu
edo beria berca badu

—

1er couplet

Bisi naiz munduan aspaldi handian
Plaser bessumbat penaren erdian
Urthe hainitz berroan iraganac denboran
Lanarekin guduan arrangurac buruan
Hobeki ustea ~~[illegible]~~ geroan ametz horen ondoan
Bethi hori goguan
(bis) Denbora sait laster yohan.

2eme

Es naiz handietaric naiz baboranietaric
Aita amen bi aldetaric
Lehena mindutan hamabi haurretaric
Es hoberenetaric hor es daike dudaric
Eta hori amigerut (haurri detaric) guanac mundu huntaric
(bis) Eme beha daudenac seru gain hortaric

3eme

Nimbenekotsat sarthu primaderan nintsan sarthu
~~[illegible]~~ Eder banaiz baburki bainuen pasatu

Oro nahi charatu orduan charmatu
Uda lehen arrossari nahi comparatu
Eta orai sarhatu pusa ere baratu
Atropas ere erditaratu
(bis) Arrantsac saiskit orai agertu
4eme:
Atspaldiko denboretan ari nais oharzen
Sahartsiac esdaukala gausa onic ekarzen
Bikita ari sait laburtzen biloa churitzen
Ahakoac erortzen ordainic es ethortzen
Indarrac ukhez biltzen egunac labur iduritzen
Eta nais hiltsias orhoitzen
(bis) Marka ari naisela tombarat hurbiltzen.
5 eme:
Gaste nintzelaric saharen ganic
Entzun nuen egia onic
Orduan es sinhesten nic hekien erranic
Orai fragatzen beharraren ganic.
Es baita halako yainic
Esdut egunic esoreric hura neurekin es dudanic
(bis) Yaraikitzen sait bethi hurbil danic
6eme:
Egunac yohan y saiskit egunen ondotic
Herioac aldis laguen sanbeit aldetic
Saharrac arrunt eta gastiac artetic
Bortchas baderamatsa gusiac mundutic
Ikhilen naisela ba badakit nois esdakit
Bekhatuen gatic
(bis) Eta nic hori esin ekhen burutic.
7eme:
Ni hiltsen naiseinian azken egunian
Dolueric es ekar enetsat orduyan
Bi tokoila arno esar enc burugainian
Edan ahal ditsadan seru gorenian
Othoitzguno bat erran deman
Loreguno bat tomba gainian, esar mement berian
(bis) Gero kanta ~~bat~~ kanta ordore oncian
8eme:
Andredena Maria ama pare gabia
Indasu laguntza bai eta argia

Micael arkanyelia ene patroin handia
Eskutan daukasu espata lasgarria
Lusiferri egiosu erditic burua
Libra eni seruko bidéa
(bis) Hau gossa desadan bethiereko lana

Fait par: Michel Tristant
Urritz. Erreko. Bidarray
en 1.940 —

Yaun buruzagiá ez diot eskiria ontza
eta ahantzen zait asko pondu
ahantzia pertzu bat berz copia
batean eskualdun cantuctan

2an

Hau milla urte passa eta anitzez aiza
Hemen bizi dela eskualdun arraza
Etsaiek ezari nahia luzan hil hotza
Azkar daukia botza eta alegera bihotza

—

yauna othoi barka ene moldegabioz

zauzten zerbait ontza es deuzk ahal
baduzu zeronek egizu zure gustura

aperitifa edanzazu lanaren zari
gutz ez
Michel Tristant Ofaldetera
Bidarray Tristetan

Arrea Charmegaria zira ederr eta gaste

1er

Aranua borthustan gora deno hegaletan
Eder da ~~oietan~~ airetan denen errege gain hartan
Halaber da eskualduna bere lurretan
Odol daukano oy bere zainetan

2em

Eskual herri gusian oy ser gasteria
Cantari pilotari dantzari da gustagaria
Plaçetan mihi garbia agerian fedia
Gora buruya ohoratzen du herria

3em

Gora gora eskualdunak anaya lagunak
Gerriko gorri bonet urdin makil feradunak
Ahurian ser burumbak letoin haridunak
Airian firurin katsiz oynez dabilanak

4em

Sasfi aldaxketako loria aldaska mantehagabia
Boulket pare gabia da eskuadi herria
Bandera ere seuria churi gorri ferdia
Gusiek ~~zor~~ dugu zuri gure ohoria

5em

Haritz eder bat gernikan yainkuak landaturikan
Milla urthes zeguritkan ostua daucka perderikan
Ohora bihotzetikan dagon bethi chutikan
Erariez gerroztikan ez duke fruturikan

6eme

Elizan etchian bidetan irakurtse lanetan
Eskuara erabil ahalaz denetan
Ederena da denetan cantu ala ayretan
Ezagutuena lurraren lau kantoinetan

7em 8em

Hari pikatua zure anayek tailatua
Sure litartea dago †gustuz moldatua
Donostia hiri kaipatua chutik dago paratua
Denez ohoratua gusis maitatua

7em

Aitaren seme handi irruneko inaki
Soldado aintzindari eskualduna zegurki
Idukazu espata zorozki bandera eskuan goraki
Su bezala bizi gaiten burua goraki

9ème

Fed
Pertsuyno hotan segurki eguak badira
Bizik hobe denak hala balira
Eskual garbi eta bete fededunak balimbagira
Eskuadin bethi gara izanen gira
Finie

Hogoi eta gehiago urte batute emanak
edo egunak utuela orai es diot
iskoria eskiou baitut ikara 78 urtetan
bayeis eleit erepostik nahi badira
arrotaynan ezari hora hok asti goz egunak

Bisarain
Michel Otsaldetierra

Moeta aitzinetik eta
Bihotzetik

Airea agur Chuberia

Refrain
Agur bidarri neure sor herri maithia
Agur adichkideri baij eta esaguneri
Deziratzen dut ossagari bihotzetikan arrari
Sahartzen naiz ari kazkua dut zuri
Chapela kendues geroz ageri ez eder andreari
Heak nahi beltch eta garbi

1er

Lau mendien artian dago bidarri
Ez dakiena ikusterat yin bedi
Biltzen da yanari artho ala ogi
Matz amo churi ala gori
Garatzh gustu on hori agradatzen zuri
Benedika bedi

2ème

Oy neure etchia aitzinetik zargia
Laster zukaldia Erdian mahia
Erdian famillia chuchen yan gthordia
Eni choria bethi mahain buria
Gure omoria hauren lari
Cantu eta ura

3ea

Etche ondoan mahastia iguzkari plazatia
Arthatzeko ere hartzen dut astia
Sotua deraukat arno onez betea
Nisanian berotia sintura idortia
Ene loria ahara dutchulia
Gustura itzulia

4em

Hemengo etchechuri barne gabienak
Baratze fruitudun oro loredunak
Mutiko lerdenak nechkato ederena
Colore churi gorri larru finenak
Dira haur onak gusgarrienak
Oro eskualdunak

5em

~~Ene zahar lagunak oraino bi~~
Ene gaste lagunak amerikan direnak
Kartuharen ondotik aspaldi yuanak
Aditurik famak zaharek ernak
Urhe eltsorekin itzultzekotan hunak
Ongi ethorri du heldu denak
Moltza gorri duenak

6eme

Hemengo haster aldiak arhazoek utziak
Bakotchak baditugu zoin gureak
Tresnak abereak borthuan arthaldeak
Oyhanak hetan urcho eta beleak
Baratche chokoan fruitu eta erleak
Hemen uros gora guziak

7em

Dembo yuan zaut bethi laburtus
Orai zahatuchea guti ustian garphuts
Alegera hok cantatuz moltzari behatuz
Balimbada doblatuz ez bada laburstuz
Batzuek laudatuz bertzek mendratuz
Nigar guti eta aunitz putz

Fin

Miche Otchaldeterra

Airea Sor lekua utziz geros

1er

Cantatzera niasen hau hogoeita urthetan
Neure ilobekin betan airerik ederenetan
Bat besoetan bertze belhauntan musu emanez artetan
Sori ona da gu baytan urozago egin nundu hunetan

2em

Demboran egin izan dut kantu eta eta chichtu
Baynan orai botza histu ez dut hambat gustu
Busti naiz eta hostu eta lastu eta bozi prestu
Asken yuyamenduan nahiz eta izan yustu

3em

Aita amek emana mundura aspaldi baytzen egun hura
Orai laburtuchea dut hemengo dembora
Goiti zo nago ardura yuan behar banaiz serura
Dut arangura noizko dukedadan egun eder hura

4em

Sortzian lehen eguna munduratziak zoriona
Nigarretan asken orena mement lasgariena
Gogora heldu bizi iragana zoin den hobenduna
Desesperaturen da bekatuan bizi izan dena

5em

Esperitu duenak inguitikan badaki
Gois edo berant gorphutz dela segurki
Gorphutza hura arima ez daki noiz nola yoaneak daki
Menturaz egun heriau ni eta bihar zure aldi

6eme

Gure bizi passatua yainco yaunak firatua
Agerian ikarretan da isanen yujatua
Sorion zerua zaiugaitz ifernua ~~betikotzat kondenatua~~
Betikotzat dehez abondanatua ~~betikotz~~ condanatua

7eme

Luretik zerurat yuaiteko bide hertsia passatzeko
Bide berá da aberatz ala pobrendako
Dirutan ez duk nihar passatuk yausik ez dik baliôtza
Bortchaz litzu behar dik hura bertzendako

8^em^

Agur seru cordina agur bat ~~zeretako~~
Labalazu ~~Idlazu~~ othoi borta gu gusiak barnerat zartzeko

8

Zeru luren erregina zu zare ama birjina
Oi chala surekilan bagina hel sakiskigu otoi gugana
Ekar guri argi eder ~~othoi argi eder~~ bana
Dirdiran hegaldadadien gorputza bay eta arima

Txoko-txoko

Aita Brunori urriaren 5-an

Aita maitea

× ×

Aurten zer miakulu zauku ba gerthatzen
Zertaki dire haurrak pertsutan mintzatzen
Sekulan ez bezala orai dire lotzen
Beren aita onari phesta desiratzen.

× ×

Aita: loretzeak bezala gare moldatuak
Zuek gaituzu aitek hola maitatuak
Gure bihotzez zaizte arras jabetuak
Zuen ondoan dire ontsa berotuak.

× ×

Zuk badakizu segur zaitugula maite
Guk dautzugu ikhusten bihotza bethi gazte
Zu gabe ez gintazke alegera hoinbeste:
Nik diotan gauza hau denek dute uste.

× ×

Zure gochotasuna dugu ezagutzen
Irri go-cho batekin gaituzu behatzen
Gure bihotzak penetan arintzen
Denek zaitugu beraz ibuski maitatzen.

× ×

Alegera bizian zer gauza eztire!...
Jinkoarena guziz hura du nausia!
Zure bisai argia hartaz da bethia
Apphez gisa baduzu Jesusen itea.

× ×

Kantuan zure boza zer gauza arina!
Zure bihotzak ez du ezagutzen mina
Jaunarekin batean badoa aintzina
Aireetaino da heltzen zeruetan barna.

× ×

Kuraya emateko zuk duzu indarra
Bethi duzu ekhartzen elhetan pindarra
Begitan ere duzu bihotzeko kharra
Oi zoin hunkigarriak dutdaik nigarra!...

× ×

Mesa saindua duzu sainduki kantatzen
Ta begiak humilki lurrerat aphaltzen
Zeruko aingeruek zaituzte behatzen
Zure othoitzak ditu Jinkoak onhartzen.

× ×

Egun zure patroina ez dago alferrik!..
Egun bederen badu gerlitzari onik!...
Saindu guziak dire segur harriturik
Ez baitute sekulan ikhus holakorik...

× ×

Entzun zazu ba Aita zure haurren oihua
Izanen gare bethi zurekin prestua.
Gure bide izarrean ekhazu eskua
Haurra Aitaren gana lasterka baitoa...

× ×

Zure egintidean ez zare bakarrik!...
Gu ere zuri gare segitzen hurbildik
Eta zure sainduak zeruko alkitik
Ichuriko dautazu grazia ederrik.

× ×

Atchik gaitzazu bethi Jesusen bidean.
Hola zure bizia bethi da lorian.
Denak helduko gira segurki agian
Jaunak hitzemana duen zorion ederrean

Choko Moko

Elèves franciscains
de St Palais
au P. Bruno

(Père Jérom.i dugu lehenik phesta desiratu buruilaren 30 ean)

P. Bruno

Aita maitea

Nere agurrak hemen diren guzieri
Eta phesta on gure Aita onari:
« Haurra so den bezala aitaren phestari
Aspaldi so ginauden egun eder huni »

Oi zer dembor' ederra zeraukun ethorri!...
Alde guzietan dire choriak kantari
Ene bihotza ere zo pilpilka da hari
Orai behar duenean mintzatu Aitari.

Gure artean ez da bihotz herra dunik,
Zuretzat egun othoitz egin ez duenik
Zure patroin sainduak baduke lan onik,
Guk galdegin guzien igortzen zerutik.

Zu zare zu guretzat Aita hoberena
Cherkatzen duzu bethi zure haurren ona,
Bethi garbi atchikiz lehengo omena
Ikhas etche hau azkar garen da aintzina

Bai prediku alkitik bai ere hemendik,
Irria khendu gabe zur'ezpainetarik
Argi ederrik ukhan dugu zure ganik,
Eskerrak denen partez baizik ez diot nik

Zure kantu gochoak zoin diren eztiak !!..
Jinkoaren kharraz baitire bethiak
Gure bihotz minetan kontsolagarriak
Eta gau ilhunkan zer argi lañoak !

Zure aire pollitak zoin hunkigarriak !
Nik badakit segurki zeruko choriak
Hala hala dituela bere sistu finak
Bere Khausi onaren laudatzeko inoak.

Zure zuzentasuna dugu preziatzen
Behar orduetan gaitutzu laguntzen
Zure elhe onek bihotza sustatzen.
Jinkoaren ganat zerurat altchatzen

zurekin othoitza da gauza eztiena
Eta eguneko lanik saindueua
Guk ere hori dugu denetan maitena
Zoren Jinkoak berak baitauku emana.

Josteketan ere zaitugu ikhusten
Ta arin arina lasterka ibiltzen
Edo bertzela musean serioski hartzen.
Edo haizkora eskuan indarrekin jotzen

Luzaz egonen zira gurekin agian
Ontsa gida gaitzazun bide zuzenian
Lan eder hori egin ondoan lurrean
Jaunak emanen dautzu saria zeruan

Choko - Moko

(29-9-44)

pertsu hauk ikhusirik, huna Ganich Iratzeder-ek pentsatzen duena:

Uztaritz herria

U Z T A R I T Z - H E R R I A

Uztaritz herria, herri eder maitagarria
Errobi aldean zabal zabala da jarriz
Iduri izar bat zeru gain hartarik jautsia
Han ereman dezagun orok gure bizi guzia.

Gaztea ez da laketzen
Geldirik denean egoiten
Beraz has gaiten dantzatzen
Orai nola lehen.

Hemen bada pilotari
Irabazten dute orori
Oi zoin eder zaukun hori !
Eskerrak jaunari !

Kanta dezagun gure herri eder maitea
Eliza, ikastegiak, landak, herriko-etchea
Kanta dezagun (bis)
Kapito-Harri eskualdun bihotzen begiratzalea

Zubiria Irigoien, Jean Pierre
'Pampilli' 'Senpertarra'

Kantu zaharrak

1

Izan nauk iparrerat hego aldetik
Iguzkiko alderat mendealdetik
Eta diat ikusi guzien gainetik
Inozentzia hainitz gizonen partetik
Abila hargatik duk egundainatik
egingabe deusik
Ederki bizi bertzien lanetik

2

Munduan jarri zuan injustizia
Nagusitu zelakotz alferkeria
Zombeit abilek ez dik denbora handia
Beretua zutela mundu guzia
Hik laboraria erein hazia
Eta bil bihia
Abilentzat zuan ogi churia

3

Aditu diat ere gauza onenak
Etzituela gizon nekhatzen zenak
Oilo oilasko eta oilanda gizenak
Jaten etzituela hazten zituenak
Janari finak arno gozoenak
Gauza hoberenak
Abilek zituela irësten denak

4

Hogoi urthez bederen lagun maitia
Ustarri pean zuan hire tokia
Eta bethi lanean hiatuz bizia
Hirenik etzukean nun pauza ~~barna~~ erhia
Bertziena guzia zer injustizia
ikaragarria
Azienden herrunkan hintzen jarria

5

Hogoi mendez bederen hola munduan
Gizona gizonaren esklabo zuan
Ebilek ezarria urhezko tronuan
Bazuan bat erregi guzien buruan
Harren inguruan alferrak zituan
bizi deskantzuan
Eta gu lanarekin bethi guduan

6

Orai dik ehun urthe lagun maitiak
Gizonaren herrunkan zuen jartziak
Lehen batzu nagusi esklabo bertziak
Iduri aita baten etziren umiak
Abrats pobriak
Dendk lerro bererat altchatuak

Y. Z.

Jean Pierre Zubiria Irigoien
'Pampilli' 'Senpertarra'

«airea» Lili bat ikusi dut baratze batean,

1e

Amodio ohore zuri jaun Iralour
Eskual herriak zaitu gaur ekartzen agur
Hitz hauk izana gatik chimple eta labur
Bihotzetik direla izan zaite segur

2e

Zuruak argiturik jaun Apezpikua
Mauleko erretorzat zare hautatua
Zure beha hor dago orai chuberoa
Airoski gidatzeko bauzu talendua

3e

Zeruko aita onak ez ahanzten nehor
Bakotcharen aldia emekigno dator
Apez Kartsuagorik etziteken etor
Arimen gidatzerat Maulerat erretor

4

Katrealean zinen lehen bikario
Obra on ~~ainitz~~ egin hor orai artio
Denek zuretzat hemen ainitz laudorio
Penarekin dautzugu eraiten adio

5e

Zapurdi chuberoa zu bachenabarre
Donasaharre hortan sortua baitzare
Jahar eta gazteak zutaz fier dire
Zure gaurko gradua denentzat ohore

6e

Jaristatua zare merezi bezala
Bere heinekoa du arbolak itzala
Zure gain izanen da chubero zabala
Ongi gobernatzeko baduzu ahala

7e

Mauleko herria ederrik chuberun
Baionatikan harat ez da hambat urun
Artetan jinen gira horat zoimbeit lagun
Zure ele gochoak berritz nahiz entzun

8e

Apezak beretako bethi azken itza
Jagore bat eskatzen derauitzut guretza
Chuberun duzularik zuk emanen meza
Otoitz zazu Jainkoa hemen utzienza

Panpilli

Saharturia defantak — Jean Pierre Zubiria

Airea Ikusten duzu goizean

1e

Nik artu nuen andrea
Etcheko alaba gaztea
Polita bezen tendrea
Ikuz orduko gustatu zaitan haren arpegiaren eztia
Meharra eta luchia
Kolore churi gorria
Holazen ene nahia

2e

Aski dembora har eta
Gizon gaia nuen hauta
Ainitz mutiko charmata
Kompagnietan estimatua baitzakien eleketa
Horrek ere zuen hatta
Bertzek bezala defauta
Soberachko zen hausarta

3e

Etche onian sartua
Nausi berri muntatua
Ainitz nintzen gastatua
Dembora hartan andria nuen pbachenta eta gochua
Han egin nuen pentsua
Zuzentzen bezalakua
Gostura bozitzekua

4e

Gaztetan ezkon berrian
Han bizi ginen larian
Jantzeko unionean
Idera onak segur zituen ene senarrak mihian
Zer nahi egin nahian
Dembora pasatzen zian
Guti aizanez lanian

5e

Artu nuen Andre fina
Orai ez dago bardina
Orduan bezen Kalina
Zortzi haurbide seme alabez famila badu egina
Satcha hauche ere fina
Mokokaria lehena
Bethi behar arrozoina

6e

Usaia tcharrak arturik
senarrak ez du gosturik
Ostatu hoitako baizik
Egun osoak pasatzen ditu goizean Kantaz asirik
Sosak hola chahuturik
Sana bertzentzat utzirik
Harrek ez du acholarik

7e

Sisutua dut andria
Bildu baitu haragia
Tripa eta ipurdia
Harrek enekin ez du pasatu deusetarik miseria
Lepo bizkarra lodia
Ederra du arpegia
Aise lehengo doblia

8e

Saharttua dut senarra
Bisai larrua zimurra
Ez da lehen bezen ederra
Jaitzi ipurdia belaunetan du gerritik Kanpo atorra
Jormanta bezen alferra
Maiz busti nahi sintzurra
Artetan eldu muskurra

Panpilli

Jean Pierre Zubiria

Apez Kalonjea

(Airea) Charmegaria zare eder eta gazte

1e

Bihotzaren erditik in nahi dut Kantu
Berri on batek bainau ni bozkariatu
Eskual herri guzian laster da hedatu
Lafitte apeza dela Kalonje pasatu

2e

Apez charmanta eta ainitz langilea
Berriketari ona errechki elea
Uztaritzen gaztien eskolatzailea
Apezpikuak in du hortaz Kalonjea

3e

Gaztetik ezarria zuten Uztaritzen
Geroztik har ari da bertzen eskolatzen
Hor pasatu gazteak ditezke oroitzen
Zoin garbiki dituen guziak argitzen

4e

Jaun horren sor lekua enustez Luhuso
Eskual herri guzia herri horren hauzo
Ainitz leku sanoa trankil eta gozo
Eskualdunek eskuara hor garbiki mintzo

5e

Bertsularien eta Kantarien besta
Eskual herrian bethi nunbeit iten baita
Zuzenki in dadien oberenen hauta
Juje lan hortako du ukaitu gombita

6e

Zanari jarraikia erlea bezala
Borondatea bezen haundia ahala
Egiten artikulu liburu eskola
Horren pareko denik diote ez dela

7e

Bihotzetik ohore eta amodio
Eskual herri guziak jaun horri zor dio
Eskualdunentzat badu ainitz amodio
Ju ganik ukan beza mila laudorio

8e

Bozkariotan gare guziak zuretza
Zutan ikusiz orai Kalonje apeza
Jainkoari diogu eginen othoitza
Gradu hortaz agian luzaz zaiten goza

Panpilli

(Airea) Sekulan oroitzeko santa Katalina

Jean Pierre Zubiria

1e

Familia ederreko semea Batita
Ainitz prestua eta mutiko charmanta
Arimen salbatzeko apez behar baita
Jainkoak hortan zuen egin bere hauta

2e

Bere haurreko lagun hauzokoekilan
Gaztetik abiatu omentzen eskolan
Maite zuen josteta maite itia lan
Deus gastakeriarik etzuen sekulan

3e

Hamabi urtetarat zelaik arribatu
Batita gaztea zen eskoletan sartu
Zan horri ere baitzen bihotz onez lotu
Eltsaminak zituen airoski pasatu

4e

Zerbitzu egineta berritz ethorria
Batita hemen dugu apeztu berria
Gorputz ederra baitu sano-ta larria
Arropa berri hortan da charmegarria

5e

Apeztuta ezarri zuten bikario
Othoitz eta prediku aise badario
Fededun tikienak horrentzat han dio
Holako apez batek ainitz dik balio

6e

Deneri baitzakien horrek nola mintza
Igandetan bethizen beteltzen eliza
Ezin ederragozen jaun horrekin meza
Apez ederra eta ederrago boza

7e

Bikario baikitu pasatu urteak
Ez da erech kondatzen horek in ongiak
Luzaz sentitu dira horen urrikiak
Ainitz maite baitzuen hoi herri guziak

8e

Emeki deneri da ethortzen tenora
Bikariotik zuten egin erretora
Nombre haundian ginen izan segitzera
Ainitz gustatu zaion herri ederrera

9e

Jostura jarria da leku charmantean
Eskual herriko mendi eder egalean
Ohuspez belainiko dago Aldarean
Artalde guzia du bere bihotzean

10e

Egunaz ala gauhaz denen zerbitzuan
Zelai eta mendiez arozki bazoan
Bertze pentsamendirik etzuen gogoan
Denak ezarri nahi bide zerukoan

11e

Adina eldu eta indarrak tipitzen
Ez garela bethiko ez dugu dudatzen
Gaztiekin baitira zaharrak ordaintzen
Lehen ere moda han hola hola baitzen

12e

Pausatzen ezarri da bere sor lekuan
Bere gorputza arras higatu ondoan
Jainkoak eman bezo saria zeruan
Hemengo artaldea bere inguruan

Panpulli

Zuhañeta, R.

Kantu berri

Nexkato bat

I

Nexkato bat preso dute hartu
Iruñen dute gakotu:
Eskualdunak gaituzte zapatu
Bainan behar zeie dolutu

Errepika: Gazte bipilak
Hartuz makilak
Enbatarat gira bildu
(Arrotz gaixtoak)
Beharri-motzak kanpoan sartu!
Jaunari zin egina dugu

II

Nexka horren bekatua zer den
Denek badakite hemen
Amodioz baitzuen agintzen
Zazpiak-Bat izan zitezen. (Errepika)

III

Jende gaixtoak dira kexatzen
Sinetsi gabe erraiten:
Horrek ditila eskandalatzen
Farisauki dira mintzatzen! (Errepika)

IV

Farisauak dira elakari
Barne tzarrak gorde nahi
Laidoa botaz abertzaleri...
Makilaz bai! dukete sarri. (Errepika)

V

Nexkato garbi hori izango
Eskual Gogoarendako
Nola artizar goizarendako
Argi alde abiatzeko. (Errepika)

R. ZUHAÑETA

Zuen zerbitzari - Esker
Jainkoari

1971

(**CHINO-KO ESKUALDUN TRONPATUEK** **GURE TRONPATZAILEARI**) E

AIREA: Suiet eder bat deklaratzen dut gaztek etsenplu hartze
ko

I) Bertsu berriak egin ditzagun publiko baita suieta
Abertitzia hemen garbiki anitzen desira baita;
Eskualdun bat atera zauku orotarik deshesta
Kanpotik eder iduri gatik, barnetik ez da prudenta.

2) Eskandala hau gertatua da hemen Chino-ko herrian
Suiet nausia ezaguna du joandeneko aspaldian,
Kopeta zuri irri filusa beti bere presentzian
Ez-ginakien zer malezia zeraukan bere barnian.

3) Gainera jakin nola enplea gurekilan malezia
Buildin zaharra hutsikan zuen balio ttipian jarria,
Hura berrituz eginen zuela aise negozio hobia
Bainan hartako etzuen aski bere sekuritatia.

4) Sekuritate eskasa eta buildina ezin errenta
Pentsatu zuen nola engaña Eskualdun ignoranta;
Orduan zauku diru galdatzen abiatu bortaz borta
Gisa hortara bururatzeko Madalena Restauranta.

5) Axola gabe kontzientzian dener diru galdeginez
Intresa haundi emanen zuela lorioski hitzemanez;
Gero urte bat pasatu eta pagatzeko dirurik ez
Nota berriak eman dauzkigu gure intresain ordainez.

6) Esplikatzeko orai garbiki egin deraukun tratia
Lehenik ama kendu dau eta gero ondotik umia;
Dudarik gabe aitzinetikan zuen ontsa planatia
Guk emanekin aise gizendu zauku holako urdia.

7) Guri eskerrak finitu zuen Restaurante bat propia
Urte bat eta erdiz izan du negozio nahi guzia;
Jan-edariak kario salduz; Zorra beti ahantzia
Berak badaki nobat joandin han egin irabazia.

8) Probisione, jan-edariak, ez dituela pagatu
Langile zonbait modu berian pagatzeko utzi ditu,
Guk eman diru eta intresak oraino oro zor ditu
Horiek bere kontzientzian, kiebra dauku deklaratu.

9) Gauza anitzak faltatu dira kiebra egin ta onduan
Zer gizona den juja ditake obratu duen moduan;
Ez du merexi konda dezagun jende onesten lerruan
Sainduagorik badago anitz duda gabe infernuan.

I0) Kontsentak ere badituela beraren jendakietan
Solas hau ere entzuten dugu orai leku guzietan;
Ontasun zonbait ere emanik bai horien izenetan
Dudarik gabe profitatzeko berak hurran egunetan.

II) Engañatzale traidoria, barnez faltsu urdina
Arrazoin gabe traitu gaitzu, guk zu lagundu zaituna;
Oroitu zaite jinen zaizula zuretzat ere eguna
Gorapen orok segur badute ondotik beherapena.

I2) Egiak hemen emaiten tugu ikasia dugun gisan
Familia duzu sainduen pare ardurenian elizan;
Jainko legia disimulatuz orai traidore gisan
Judas-ek ere Jesus baitzuen hola engañatu izan.

I3) Judas-ek pare zira guretzat orai debru mutur zuri
Grado hoberik gure ganikan ez baitukezu merexi;
Holakorikan ez da gertatu nihun Eskualduneri
Zorrak pagatu arte ez duzu gutarik barkamendurik.

I4) Zure konduta zabaldua da deia eremu haundian
Hemengo zonbait Estado eta gainera Eskual herrian;
Gerta bazinte itotzen ari itsasoaren erdian
Ez ginezake nihundik eman zuri laguntza ordian.

I5) Kantu hauk hola eman ditugu ukan ditugun odretan
Bai hemeretzi ehunak eta hiruogoi ta hamekan;
Omore onez kanta ditzagun Eskuadunek orotan
Kontent ez denak eman ditzala arrapostiak berritan.

I6) Michel Irigoin dugu oraiko suiet ontako nausia
Donazaharre Legarretenian sortua den axeria;
Kalifornian galdu du orai sekulako ohoria
Estonaturik utziak gaitu, ezagun jende guzia.

(ZUEN ZERBITZARI - ESKER JAINKOARI)

FSC
TT-COC-2573